En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 10:30 horas del día 11 de julio de 2025, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres./Sras. Concejales/as Dª. Ana Azanza Burusco, D. José Irigaray Gil, Dª. Andrea Juandeaburre Serna y D. Eder Martínez de Miguel, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

## 1.- ACUERDO SOLICITUD CONVOCATORIA AYUDAS ACTUACIONES FORESTALES Y APROBACIÓN PROYECTO 2025-2026

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés, que informa que aprobada convocatoria de ayudas para actuaciones forestales 2025-2026 (RESOLUCIÓN 21/2025, de 23 de abril) y siendo necesario seguir con la mejora del monte, caminos, recuperación de pastos para ayuda del sector primario, fundamental para el desarrollo económico y social de la Villa, se encomendó a Ekilan la redacción de proyecto con inclusión de las siguientes actuaciones previamente tratadas:

"Desbroces Xuringoa 3,1has., trasmochos Arrobi 6 nuevo y 6 de mantenimiento, auzolan material de bacheado y mejora de caminos: Cuello Anton-Aldaparri, Portillo de los Burros y Cuesta Menditxuri, cierres Gabarbide 600 m. y la Teja 120 m."

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que, en relación a los trasmochos de Arrobi, propone que no se vuelvan a repasar los hechos antes de 2011 y que esa partida que está destinada a ello se dedique a nuevos trasmochos. Justifica su propuesta debido a que, por un lado, los brotes no tienen un porte suficiente, y por otro, la aparición este año de *Charala Fraxinea*. Explica que se trata de un hongo que afecta a los fresnos y que, para evitar su propagación, una de las medidas recomendadas es hacer los cortes imprescindibles. Es decir, en este caso lo mejor es solamente podar los que llevan años sin podarse y que tienen riesgo a desgarros por tener las besangas muy grandes. Estando todos los corporativos de acuerdo con la propuesta.

Se acuerda por unanimidad:
1º.- Ratificar la adjudicación de la redacción y dirección de obra a Ekilan por la cantidad de xxxx €
2º.- Aprobar el proyecto de actuaciones forestales presentado para la campaña 2025-2026 con un coste de 31.685,23 € IVA incluido.
3º.- Presentar solicitud a la convocatoria para la campaña forestal 2025-2026 de las ayudas a trabajos forestales promovidos por entidades locales.

## 2.- CONTESTACION RECURSO DE REPOSICIÓN FORMULADO POR XXX CONTRA ACUERDO DE SESION DE FECHA 7 DE ABRIL DE 2025

El alcalde Sr. Irigaray Oses pone en conocimiento de la corporación el recurso de reposición interpuesto por XXX contra acuerdo de sesión de fecha 7 de abril de 2025 al que da lectura en este acto:

*"Vista solicitud de D. DXX, en la que solicita la paralización del proyecto "Recuperación del legado histórico del recinto amurallado de Auritz/Burguete a través de la consolidación de parte de su perímetro" el pleno del Ayuntamiento de considera que:*

*1. Esta propuesta tuvo el visto bueno del pleno del Ayuntamiento a través de un acuerdo en sesión extraordinaria del 24 de enero de 2023 en la cual se acordó presentarlo a las ayudas para la mejora de la competitividad y de dinamización del patrimonio histórico con uso turístico del Ministerio de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno de España aportando para ello una memoria aproximada de las acciones a realizar y una estimación de costes.*

*2. Esta propuesta ha conseguido la financiación al 100%, considerándose que es una oportunidad única para desarrollarla y que difícilmente podría desarrollarlo sin dicha ayuda.*

*3. Además de ser un atractivo turístico que promocione esta villa y favorezca su desarrollo económico y por tanto social, es también una recuperación de parte de la historia local que va a servir para mejorar una parte del entorno de esta parte del casco urbano y por lo tanto beneficiará de manera directa en la mejora de condiciones de vida.*

*4. Desde que se notificó a este Ayuntamiento en febrero de 2025 la inclusión de la propuesta en las ayudas, se viene trabajando con las diferentes partes implicadas para poder cumplir los plazos establecidos por la subvención.*

*5. Que se está trabajando en las últimas semanas con el vecindario que se verá afectado directamente por la ejecución del proyecto, especialmente en las huertas de la zona oeste, para que en todo momento las consecuencias de esta ejecución sean las menores y la ciudadanía afectada esté en todo momento enterada.*

*6. Que este proyecto se presentará al vecindario en el próximo batzarre, para que toda la ciudadanía de la villa tenga conocimiento del mismo.*

*7. Que la petición de paralización del proceso de adjudicación de la redacción del proyecto se basa en una memoria, que como es obvio no concreta de manera exhaustiva las intervenciones a realizar y que vendrán definidas y concretadas en el proyecto a redactar.*

*Además de ello, vistas las solicitudes de paralización, el Ayuntamiento solicitó el 19 de marzo informe urbanístico a Nasuvinsa, el cual concluye favorablemente informando que el proyecto planteado se adecúa a la normativa vigente; Plan General Municipal de Auritz/Burguete y Plan Especial de Protección del Conjunto Histórico de Auritz/Burguete.*

*Por todo ello, se acuerda por unanimidad:*

*1. Denegar la solicitud realizada por D. XXX de paralización de adjudicación de redacción y dirección de obra del proyecto de "Recuperación del legado histórico del recinto amurallado de Auritz/Burguete a través de la consolidación de parte de su perímetro".*

*2. Mostrar el compromiso del pleno con la ejecución de este proyecto.*

*3. Dar traslado de este acuerdo al interesado.*

> *En cuanto a la instancia también presentada el día 27 de marzo por el Sr. XXX donde realiza una serie de consideraciones a la memoria que ha servido de base para la concesión de la ayuda, la corporación acuerda tener en consideración las aportaciones realizadas en dicha instancia y trasladarlas al equipo que va a redactar el proyecto."*

Informa a su vez, del requerimiento que previamente se le trasladó al Sr. XXX desde Secretaría, para que aclarara contra que acto interponía recurso ya que en su escrito no lo hacía. Presentada aclaración por su parte, procede resolver el mismo por el órgano que dictó el acuerdo que en este caso es el Pleno.

A continuación, da lectura al informe emitido desde Secretaría que se transcribe íntegro a continuación:

*INFORME CONTESTACIÓN AL RECURSO DE REPOSICIÓN INTESPUERTO POR XXXX*

*D. XXX, tras haber asistido al batzarre de 11 de abril de 2025 y recibido el Acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 7 de abril de 2025, interpone recurso de reposición exponiendo, entre otros motivos, su disconformidad con diversos elementos recogidos en la memoria técnica de la propuesta de recuperación del entorno de las murallas, entre ellos:*

- *La falta de previsión de servidumbre de paso para las huertas afectadas por los muros 2 y 3.*
- *El incumplimiento, a su juicio, del artículo 99 punto 2 del Plan Especial de Protección del Casco Histórico con la ejecución de los muros 4,5 y 6.*
- *La inclusión de tramos del itinerario en propiedad privada (su huerta).*
- *La construcción del muro 9, no contemplado en el Plan Especial.*
- *Criticas a la ejecución parcial del asfaltado de caminos, considerándolo en beneficio particulares y no de interés general.*

*Una vez analizado el contenido del recurso, se considera lo siguiente:*

1. *En la actualidad, no existe un proyecto técnico definitivo aprobado ni visado, por lo que ninguna actuación concreta ha sido decidida ni ejecutada. Las cuestiones planteadas por el recurrente se refieren a propuestas iniciales incluidas en una memoria técnica de carácter preliminar y, por tanto, no tiene efectos jurídicos ni suponen un acto administrativo firme.*
2. *El Ayuntamiento de Auritz/Burguete reitera su compromiso de cumplir íntegramente la normativa urbanística y patrimonial vigente, incluyendo el Plan Especial de Protección del Conjunto Histórico de Auritz-Burguete. Ningún elemento que contradiga dicha normativa será incluido en el proyecto final.*
3. *Todas las actuaciones proyectadas quedan supeditadas al correspondiente proyecto técnico que actualmente está en proceso de redacción, que a su vez deberá contar con el informe favorable de la arquitecta municipal, e informe favorable y autorización de la Dirección General de Cultura – Príncipe de Viana. Ninguna intervención será ejecutada sin dichos informes favorables.*
4. *En relación con las servidumbres de paso o afecciones a parcelas privadas, las mismas se llevarán a cabo con autorización de sus propietarios, garantizando el derecho de la propiedad y el interés general, siempre con respeto al marco legal.*

*Respecto a la parcela privada del recurrente, el Ayuntamiento se compromete a no tocar su parcela ni afectar su parcela como así se verá reflejado en proyecto.*

*5. En relación con las servidumbres de paso o afecciones de parcelas no privadas, es decir de titularidad pública, corresponde al Ayuntamiento dentro de la legalidad y cumplimiento de la normativa urbanística y patrimonial decidir que, hacer y cómo actuar en ellas.*

*Por todo ello, procede desestimar el recurso de reposición presentado, al no haberse adoptado ninguna decisión definitiva ni aprobado proyecto alguno que contravenga la normativa vigente. El Ayuntamiento actuará con plena sujeción a derecho una vez exista documentación técnica forma, completa y debidamente autorizada por los órganos competentes.*

Tras la lectura del informe y debatido el asunto, se acuerda por unanimidad:

1º.- Asumir el informe de Secretaría, desestimando en su integridad el recurso de reposición interpuesto por XXX.

2º.- Dar traslado al Sr. XXX del presente acuerdo.

**3.- RESPUESTA A ESCRITO PRESENTADO POR XXX EN LA DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN-PRÍNCIPE DE VIANA SOBRE EL PROYECTO DE RECUPERACIÓN DEL RECINTO AMURALLADO DE AURITZ/BURGUETE, DEL CUAL SE NOS HACE TRASLADO.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés que da lectura al texto íntegro redactado en contestación a escrito que D. XXX ha presentado ante la Dirección General de Cultura-Institución-Príncipe de Viana y que esta a su vez ha remitido al Ayuntamiento.

***Contestación a escrito de D. XXX presentado ante la Dirección General de Cultura-Institución- Príncipe de Viana.***
***Preámbulo.***
*Con fecha 12 de junio de 2025 la Sección de Patrimonio Arquitectónico remite a este Ayuntamiento oficio en el que traslada el escrito que D. XXX ha remitido a la Dirección General de Cultura-Institución-Príncipe de Viana sobre el proyecto de recuperación del recinto amurallado de Auritz/Burguete, cuya redacción promueve el Ayuntamiento.*
*Aclarar, que el escrito viene formulado como alegaciones si bien, el Ayuntamiento no las responde como tales ya que no hay nada acordado o abierto que requiera en este momento presentarlas.*
*Este Ayuntamiento considera que el escrito presentado por D. XXX está lleno de imprecisiones y graves acusaciones infundadas que se deslegitiman con los argumentos que se exponen a continuación:*
*Aclaraciones previas a las observaciones planteadas en el escrito.*
*Respecto a las trazas de murallas que están plasmadas en el Plan Especial del Protección (PEP) aprobado en 2011, éstas son las que había cierta evidencia visual de su existencia.*
*Por lo que se refiere a la eliminación de una actuación contemplada en el estudio geotécnico realizado en 2008, en concreto la primera, ésta no se ejecuta debido a que en*

*2023 se derribó el edificio (Borda Masso) por amenaza de ruina y se consolidó el muro de contención.*
*En relación a la afirmación que hace de que en una zona (La que va desde casa Urdozena a la de Iñarrea) se cambia el tipo de muro respecto al apuntado del estudio geotécnico realizado en 2008, es debido a que el estudio apuntaba soluciones técnicas (muro de hormigón o una escollera) a un problema de estabilidad del terreno y lo que se pretende en la actualidad es dar esa solución técnica con los criterios históricos que marca el PEP aprobado en 2011 para la recuperación de las antiguas defensas.*

***Acusación de opacidad.***
*Dice que el Ayuntamiento ha actuado con opacidad argumentando que es un proyecto hecho hace 15 años, cosa que es totalmente falsa. El proyecto se está redactando en estos momentos, acordándose su redacción en sesión del pasado 28 de febrero. Las acciones que se han hecho sobre la recuperación del recinto defensivo han tenido su reflejo en las actas de pleno, bien con la toma de acuerdos o bien informando al pleno. (10 de abril de 2008, 18 de diciembre de 2008, 23 de abril de 2009, 4 de junio de 2009, 6 de agosto de 2009, 15 de octubre de 2009, 17 de diciembre de 2009, 17 de junio de 2010, 9 de septiembre de 2010, 21 de diciembre de 2010, 18 de agosto de 2011, 13 de octubre de 2011, 22 de diciembre de 2011, 19 de abril de 2012, 4 de octubre de 2012, 7 de octubre de 2013, 11 de febrero de 2014, 7 de octubre de 2014, 18 de diciembre de 2014, 29 de mayo de 2019, 25 de mayo de 2020 y 15 de marzo de 2021). Como resumen, las actuaciones llevadas a cabo desde 2008 quedan reflejadas en el acta de la sesión de 24 de enero de 2023. La actividad llevada a cabo desde entonces hasta la actualidad consta en el libro de actas de pleno (25 de abril de 2023, 3 de noviembre de 2023, 6 de febrero de 2024 y 28 de febrero de 2024,). Las actas se cuelgan en el tablón del Ayuntamiento, en la web municipal y desde esta legislatura, se difunden por un grupo de wasap municipal. Además, se ha informado en los batzarres anuales de cuentas y presupuestos y en los que cómo punto del orden del día, tuvieron lugar el 11 de abril y 28 de junio de 2025.*
*Razona la opacidad en que los proyectos de fin de carrera fueron tutorizados por José Irigaray Gil, entonces alcalde, y que no han tenido exposición pública hacia los vecinos. En primer lugar, matizar que fueron tutorizados como ingeniero técnico agrícola que es su titulación universitaria y no como cargo público de Auritz/Burguete como insinúa y respecto a la falta de publicidad de los mismos insistir que es totalmente incierto ya que se dio cuenta de su realización en los plenos de 18 de agosto y 21 de diciembre de 2011, como consta en las respectivas actas y están a disposición del público en la biblioteca de la Universidad Pública de Navarra donde se hallan depositados. No se debe obviar que los proyectos no pasan de ser unos estudios que no tienen ninguna validez jurídica o normativa, sino una exposición de ideas cuyo fin es la formación de estudiantes universitarios.*

***Incumplimiento de normativa.***
*Expone que hay varios lienzos que no cumplen lo establecido en el PEP concretamente el artículo 99. La memoria, que no proyecto, tiene informe favorable de la asesoría urbanística municipal, pero será el proyecto el que deba definir y cumplir el citado artículo.*

*En su escrito hace simulaciones gráficas del resultado de la ejecución utilizando para ello una memoria y un proyecto de fin de carrera, sin tener en cuenta que lo que va a definir la ejecución va a ser el proyecto visado que es en lo que se está trabajando.*

*Dice que el itinerario discriminará a personas con movilidad reducida y qué pasará por propiedades privadas. Precisamente el proyecto prevé eliminación de barreras arquitectónicas en el itinerario y en servicios. Respecto a la invasión de fincas privadas del itinerario manifestar que será el proyecto el que lo defina y concrete, pero en ningún momento el itinerario va a discurrir por fincas privadas, explicación que reiteradamente se ha dado en los batzarres y que a él personalmente se le contestó en el batzarre celebrado el 11 de abril de 2025.*
*A propósito de la propuesta de pavimentación para el itinerario realizada por el Sr. XXX, entiende esta Corporación que en ella si que se ve favorecido el interés particular, en concreto el suyo, en detrimento del interés general al que alude. No obstante, será el equipo redactor el que proponga tanto el trazado como las zonas a pavimentar y que por supuesto cumplirá criterios de accesibilidad.*

***Acusación de falseamiento de la historia y privatización de terrenos.***
*Acerca de la acusación de falseamiento de la historia y de la titularidad de los terrenos y manipulación en el proyecto. Se debe entender que a día de hoy es imposible recuperar la totalidad del recinto defensivo de 1637 ya que en tramos está invadido por edificaciones construidas a posteriori. Lo que si se ha tenido en cuenta es el documento de 1877 donde el alcalde Miguel María de Masso hace una relación de la piedra existente de las fortificaciones y su ubicación.*
*Hace referencia al documento existente en el archivo municipal de 1888 y sitúa aquel conflicto por la piedra en una finca propiedad de la casa de Lorentx que a su entender queda fuera del recinto defensivo. Ignora que la citada casa poseía varias propiedades en el casco urbano y que el documento en cuestión habla de la piedra acopiada tras el desmantelamiento de la fortificación. Presenta una ortofoto aérea donde ni siquiera localiza la zona de conflicto en el prado de Lorentx, sino en los prados de Oiarbide y Reca. Es decir, más lejos todavía del casco urbano. Se puede pensar que lo ha hecho por ignorancia o intencionadamente para desprestigiar más los argumentos históricos que maneja el Ayuntamiento.*
*En todo caso informar que el equipo redactor cuenta con la asesoría de un arqueólogo que acompañara en la dirección de la obra y en todo caso siempre se ha contado y de hecho se viene trabajando conjuntamente con la institución Príncipe de Viana que es la que ha informado favorablemente cuando las actuaciones que se han ido llevando a cabo hasta el momento lo han requerido.*

*Afirma que los muros 5 (Huerta Zurginenea) y 10 (Trasera de Aguio y Espelosin o Agorreta) son falsos y que con ellos lo único que se pretende es, a su entender, legalizar irregularidades cometidas. Lo argumenta con ortofotos de 1927 y 1934 en las cuales precisamente se ve la existencia de taludes en ambas zonas que por motivos de*

*construcciones posteriores ejecutadas en los años 70 y 80 del pasado siglo fueron desmontados.*
*Con la ejecución del proyecto se pretende recuperar la orografía anterior para evitar además la erosión del terreno. Documentación histórica cita las zonas como lugares ocupados por la fortificación.*

*Asegura que en la rehabilitación de los Muros 4 (Huerta Garate) y 9 (Borda Etxeberria) llevadas a cabo en 2009 se tiró piedra y eso no es cierto. De hecho, para su ejecución se recuperó piedra, de derribos llevados a cabo en el municipio.*

*En cuanto a la mención que hace sobre privatización de terrenos públicos, dejar claro que ni es cierto, ni desde luego es la intención de este Ayuntamiento, como ya se ha manifestado en el informe emitido por el arquitecto redactor de la memoria Sr. Fernando Martinez, y que en su día se le dio traslado al Sr. XXX.*
*Las diferencias obrantes en las memorias, quedaron aclaradas mediante informe del arquitecto, informe que se expuso en el batzarre de 11 de abril.*
*En cualquier caso, este Ayuntamiento trabaja como así lo viene demostrando, en la línea contraria expuesta por el Sr. XXX sobre privatización de terrenos comunales, velando por la defensa y recuperación del comunal.*

***Acusación de primar el beneficio de familiares de corporativos y otros vecinos.***
*Sostiene que la ejecución de este proyecto obedece en parte al beneficio de familiares de los representantes municipales.*

*Solicita que se replanteen los Muros 4, 5 y 6 (Huertas Erlande, Zurginenea y Azanza o Txantxutena) para que cumplan la normativa y asevera que se propone su ejecución para beneficio de familiares de corporativos (Unai Irigaray Oses, José Irigaray Gil y Ana Azanza Burusco), cuando su implantación se hace en terreno público de propiedad municipal inmatriculado a nombre del Ayuntamiento de Auritz/Burguete en el Registro de la Propiedad de Aoiz. Ningún familiar de los representantes municipales tiene propiedades en la zona de actuación.*

*Respecto a la titularidad privada o pública de los terrenos nada que objetar e insistir que se puede consultar su pertenencia en el Registro de la Propiedad de Aoiz donde se puede comprobar que el titular de los mismos es el Ayuntamiento de Auritz/Burguete. La actuación se va a llevar en terrenos de naturaleza pública.*

*En relación al Muro 6 (Huerta Azanza o Txantxutena), acusa que se hace por interés particular, en concreto por favorecer a la familia de una corporativa del Ayuntamiento (Ana Azanza Burusco). Como se ha dicho reiteradamente la actuación se lleva en terrenos municipales cuyo titular es el Ayuntamiento de Auritz/Burguete. En sesión ordinaria de 8 de febrero de 2000 la Corporación acordó defender el carácter público del terreno referido y así consta en el Registro de la Propiedad de Aoiz. Precisamente XXX es conocedor de ello pues, participó como concejal que era, en la sesión plenaria de 8 de febrero de 2000 como*

*consta en dicha acta. Respecto a su petición de arreglo y restauración del mismo se ha valorado por parte del equipo técnico y dado que se encuentra la infraestructura a punto de colapsar se prevé desmontarlo y rehacerlo con la piedra existente que esté en buen estado hasta la altura que dicte el proyecto.*

*En sus referencias acerca de la Zona 6 (Huerta Ordoki), dice que desaparecen actuaciones en esa zona cuando el proyecto definitivo plantea actuaciones en esa zona comunal tal y como se expuso en el batzarre. Propone que se quiten los Muros 9 y 11 (Traseras de Aguio y Espelosin o Agorreta), porque según él son actuaciones que benefician a particulares y pide que se realicen unos muros cerrando esa huerta (Huerta Ordoki) que es pública. Parte de esa propuesta carece de lógica y rigor histórico en el recinto defensivo, en concreto lo planteado en la parte baja de la misma. La huerta colindante es de su propiedad y con su propuesta quedaría la zona cerrada por todos los frentes. Relacionado con esta zona, otra incongruencia que propone es el retranqueo, del Muro 6 (Huerta Azanza o Txantxutena), cuya trazabilidad es histórica y de titularidad pública, en aras a ensanchar la cuesta de acceso y no tocar un seto que previsiblemente habrá que abrir para dar visibilidad al recinto desde el itinerario.*

***Conclusión.***
*XXX en su conclusión finaliza, solicitando que, se modifique el proyecto para que se actúe según el interés general, que sea accesible, que se respete el Plan Especial de Protección (PEP) del casco histórico y que no se actúe por el interés particular en la reconstrucción de los lienzos.*
*Decir respecto a estas cuatro cuestiones que el proyecto actúa como no podía ser de otra manera mirando el interés general, que la accesibilidad va a estar garantizada, que por supuesto se va a respetar la normativa urbanística municipal contando con los informes previos de la asesoría urbanística municipal y de la institución Príncipe de Viana, tal y como hasta la fecha se viene haciendo.*
*Esta Corporación no puede admitir que se le acuse de defender el interés particular de familiares de ediles en la reconstrucción de los lienzos frente al interés general que es el modus operandi de este Ayuntamiento, no pudiendo aceptar tampoco las acusaciones de privatización de terrenos comunales que en ningún caso se llevarán a cabo, ni con este proyecto ni con ningún otro.*

Tras su lectura, el alcalde Sr. Irigaray Oses, añade a lo leído y así quiere que conste lo siguiente:
En relación con las acusaciones de opacidad, invita al Sr. XXX a que diga que ayuntamiento de las mismas características que Auritz/Burguete conoce con un nivel de transparencia como éste y que sí es así, nos haga traslado del mismo.
Que este Ayuntamiento trabaja por la participación social y política, por la accesibilidad y para que las vecinas y vecinos sientan esta casa como cercana y abierta.

Respecto a las acusaciones de privatización, precisamente la línea de trabajo de este ayuntamiento es justamente la contraria, se trata de recuperar y de defender el comunal y si no fuera así, la propia Sección de Comunales del Gobierno de Navarra ya se encargaría como ya lo viene haciendo de impedirlo.

Quiere dejar claro que esta Corporación, en este y otros proyectos trabaja siempre y como no puede ser de otra manera, de la mano con legalidad urbanística y por supuesto mirando por el interés general y no por el particular.

Por todo ello esta Corporación acuerda por unanimidad:

1. Aprobar la respuesta de contestación al escrito de D. XXX presentado ante la Dirección General de Cultura-Institución-Príncipe de Viana.
2. Remitir a la Sección de Patrimonio Arquitectónico el presente acuerdo integro que responde a las cuestiones planteadas por D. XXX ante la Dirección General de Cultura-Institución-Príncipe de Viana sobre el proyecto de recuperación del recinto amurallado de Auritz/Burguete, cuya redacción promueve el Ayuntamiento.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 11:00 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2025eko uztailaren 11ko 10:30ean, Udala bildu zen ez ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Ana Azanza Burusco, José Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Eder Martínez de Miguel. Bilkura buru alkatea, Una Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

**1.- BASO JARDUEREN DIRULAGUNTZA ESKATZEA ETA 2025-2026 PROIEKTUA ONARTZEA**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du baso-jardueretarako laguntzen 2025-2026 deialdia argitaratu dela (21/2025 EBAZPENA, apirilaren 23koa). Kontuan hartuz mendia eta bideak hobetzen jarraitu behar dugula, bai eta herriko garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezkoa den lehen sektoreari laguntzeko larreak berreskuratzea beharrekoa dela, Ekilani proiektua idazteko eskatu zitzaion, eta aurrez landutako jarduera hauek ere sartu ziren:

“Sasi garbiketak Xuringoan (3,1 Ha.), zuhaitz lepatuak Arrobin (6 berri eta 6 mantendu beharrekoak), auzolanerako materiala bideetako zuloak estaltzeko eta hobekuntza lanak egiteko Anton-Aldaparriko lepoan, Astoen atakan eta Menditxuriko aldapan, hertsiak Gabarbiden (600 m) eta Tejan (120 m).

Irigaray Gil zinegotzi jaunak hitza hartu du eta, Arrobiko zuhaitz lepatuei dagokienez, 2011. urtea baino lehen egindakoak ez ukitzea eta horretarako dagoen partida berrietan erabiltzea

proposatu du. Bere proposamena justifikatzen du, alde batetik, kimuak oraindik txikiak direlako, eta bestetik, aurten gaixotasun bat agertu delako, *Charala Fraxinea*. Lizarrei eragiten dien onddoa dela azaldu du, eta, zabaltzea saihesteko, gomendatutako neurrietako bat ezinbesteko ebakiak bakarrik egitea dela. Hau da, kasu honetan, inausi gabe urteak daramatzatenak eta urratuak izateko arriskua dutenak bakarrik inaustea da onena, besanga oso handiak dituztelako. Udalkide guztiak ados daude proposamenarekin.

Aho batez erabaki da:
1.- Proiektua prestatzea eta obra zuzendaritza Ekilani adjudikatzeko ebazpena berrestea, guztira xxx euroko kostua du.
2.- 2025-2026 Baso Jardueren kanpainarako aurkeztutako proiektua berrestea, haren kostua 31.685,23 € (BEZa barne) dela.
3.- Toki entitateek sustatutako oihan lanetarako 2025-2026 kanpainarako laguntzen deialdirako eskaera aurkeztea

## 2.- XXX-K 2025EKO APIRILAREN 7KO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOARI ERANTZUTEA

Irigaray Osés alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio XXXk 2025eko apirilaren 7ko erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa. Hona hemen:

*XXXk "Aurizko harresi-barrutiko ondare historikoa berreskuratzea, perimetroaren zati bat finkatuz" proiektua geldiarazteko eskatu duela ikusita, Udalbatzak honakoa uste du:*

*1. Proposamen horrek Udalaren osoko bilkuraren oniritzia jaso zuen 2023ko urtarrilaren 24ko ezohiko bilkurako erabaki baten bidez, zeinean erabaki baitzen Espainiako Gobernuaren Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren laguntzetara aurkeztea, lehiakortasuna hobetzeko eta erabilera turistikoa duen ondare historikoa dinamizatzeko laguntzetara, eta, horretarako, egin beharreko ekintzen gutxi gorabeherako memoria bat eta kostuen estimazio bat aurkeztu ziren.*

*2. Proposamen honek %100eko finantzaketa lortu du, berau garatzeko aukera paregabea delakoan eta laguntza hori gabe nekez burutu litekeelakoan.*

*3. Hiribildu hau sustatu eta garapen ekonomikoa eta, beraz, soziala sustatuko duen erakargarritasun turistikoa izateaz gain, tokiko historiaren zati bat berreskuratzea ere bada, hirigunearen alde honen zati bat hobetzeko balioko duena, eta, beraz, zuzenean bizi-baldintzak hobetuko ditu.*

*4. Udal honi 2025eko otsailean proposamena laguntzetan sartu zela jakinarazi zitzaionetik, inplikatutako alderdiekin lanean ari gara diru-laguntzak ezarritako epeak bete ahal izateko.*

*5. Azken asteetan, proiektuaren exekuzioak zuzenean eragingo dien auzokideekin lanean ari dira, bereziki mendebaldeko baratzeei dagokienez, exekuzio horren ondorioak uneoro ahalik eta txikienak izan daitezen eta eragindako herritarrak uneoro jakinaren gainean egon daitezen.*

*6. Proiektua hurrengo Batzarrean aurkeztuko zaiela bizilagunek, guztiek jakinaren gainean egon daitezen.*

*7. Proiektuaren idazketa esleitzeko prozesua geldiarazteko eskaera memoria batean oinarritzen dela, eta, bistan denez, ez ditu zehatz-mehatz zehazten egin beharreko esku-hartzeak, eta idazten den proiektuan zehaztu eta definituko direla.*

*Horretaz gain, gelditzeko eskaerak ikusita, Udalak martxoaren 19an hirigintzako txostena eskatu zion Nasuvinsari, eta honek aldeko ebazpena eman du eta adierazi du planteatutako proiektua indarreko arautegira egokitzen dela: Aurizko Udal Plan Orokorra eta Aurizko Multzo Historikoa Babesteko Plan Berezia*

*Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez:*

*1. Ukatzea XXX jaunak egindako eskaera, "Aurizko harresi-esparruaren ondare historikoa berreskuratzea haren perimetroaren zati bat sendotuz" proiektuaren idazketaren eta obra-zuzendaritzaren esleipena geldiaraztekoa.*

*2. Osoko bilkurak proiektu hau gauzatzeko duen konpromisoa erakustea.*

*3. Interesatuari erabaki honen berri ematea.*

*XXXk martxoaren 27an aurkeztu zuen instantziari dagokionez, laguntza emateko oinarritzat hartu den memoriari buruzko gogoeta batzuk egiten ditu. Instantzia horretan egindako ekarpenak kontuan hartzea eta proiektua idatziko duen taldeari jakinaraztea erabaki du korporazioak.*

Era berean, idazkaritzatik XXX jaunari igorri zitzaion errekerimenduaren berri eman du, errekurtsoa zein egintzaren aurka jartzen zuen argitu zezan, idatzian ez baitzuen halakorik egiten. Azalpen hori aurkeztuta, erabakia hartu zuen organoak ebazpena eman behar du, kasu honetan Udalbatzak.

Ondoren, idazkaritzak emandako txostena irakurri du. Hona hemen:

*XXXK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA*

*XXX jaunak, 2025eko apirilaren 11ko batzarrean egon ondoren, eta Udalbatzak 2025eko apirilaren 7ko osoko bilkuran hartutako erabakia jaso ondoren, berraztertze-errekurtsoa jarri du, eta, besteak beste, adierazten du ez zegoela ados harresien ingurua berreskuratzeko proposamenaren memoria teknikoan jasotako zenbait elementurekin, honakoak besteak beste:*

- *2. eta 3. hormek ukitzen dituzten baratzeetan bide-zorrik ez aurreikustea.*
- *Bere ustez, 4,5 eta 6. hormak egitean ez da Hirigune Historikoa Babesteko Plan Bereziaren 99. artikuluko 2. puntua betetzen .*
- *Ibilbidearen zati batzuk jabetza pribatuan sartzea (bere baratza).*
- *9. horma eraikitzea, Plan Berezian jasota ez dagoena.*
- *Kritikak bideak partzialki asfaltatzeari, bere ustez partikularren onurarako baita eta ez interes orokorrerako.*

*Errekurtsoaren edukia aztertuta, honakoa uste da:*

*1. Gaur egun, ez dago behin betiko proiektu teknikorik, ez onetsirik, ez oniritzirik; beraz, ez da jarduketa zehatzik erabaki, ez eta gauzatu ere. Errekurtsogileak planteatutako gaiak aurretiazko memoria teknikoan*

*sartutako hasierako proposamenei buruzkoak dira eta, beraz, ez dute ondorio juridikorik eta ez dakarte administrazio egintza irmorik.*

*2. Aurizko Udalak berriz ere konpromisoa hartu du hirigintzako eta ondareko araudi indarduna osorik betetzeko, Aurizko Multzo Historikoa Babesteko Plan Berezia barne. Araudi horrekin kontraesanean dagoen elementurik ez da amaierako proiektuan sartuko.*

*3. Proiektatutako jarduketa guztiak dagokien proiektu teknikoaren mende daude. Proiektu hori une honetan idazketa-prozesuan dago. Proiektu horrek udal-arkitektoaren aldeko txostena eta Vianako Printzea Kultura Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena eta baimena izan beharko ditu. Ez da inolako esku-hartzerik egingo aldeko txosten horiek gabe.*

*4. Lurzati pribatuetako bide-zortasun edo afekzioei dagokienez, jabeen baimenarekin egingo dira, jabetza eskubidea eta interes orokorra bermatuz, beti ere lege esparrua errespetatuta.*

*Errekurtsogilearen lursail pribatuari dagokionez, Udalak bere lursaila ez ukitzeko konpromezua hartu du bere gain, eta proiektuan horrela islatuko da.*

*5. Pribatuak ez diren, hau da, titularitate publikokoak diren lursailen bide-zortasun edo afekzioei dagokienez, Udalari dagokio, legezkotasunaren eta hirigintza eta ondare araudiaren betetzearen barruan, zer egin eta nola jokatu erabakitzea.*

*Hori dela eta, aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa ezetsi egin behar da, ez baita behin betiko erabakirik hartu, ezta indarrean dagoen araudiaren aurkako proiekturik onartu ere. Dokumentazio tekniko osoa eta organo eskudunek behar bezala baimendua dagoenean, Udalak zuzenbide osoz jardungo du.*

Horiek horrela eta gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Idazkaritzaren txostena onartzea eta XXXk jarritako berraztertzeko errekurtsoa bere osotasunean ezetstea.

2.- XXX jaunari erabaki honen berri ematea.

**3.- XXX-K VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAN AURKEZTUTAKO IDAZKIARI EMANDAKO ERANTZUNA. IDAZKI HORI AURIZKO HARRESI-BARRUTIA BERRESKURATZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA DA, ETA HELARAZI DIGUTE.**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta XXX jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian aurkeztu duen eta honek Udalari igorri dion idatziari erantzunez idatzitako testu osoa irakurri du.

***XXX jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian aurkeztu duen idatziaren erantzuna.***
***Atarikoa.***
*2025eko ekainaren 12an, Ondare Arkitektonikoaren Atalak ofizio bat bidali zion Udal honi, XXXX jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari Aurizko harresi-barrutia berreskuratzeko proiektuari buruz bidali zion idatzia helarazteko. Proiektu hori Udalak sustatu du.*

*Argitu behar da idazkia alegazio gisa formulatuta dagoela, baina Udalak ez ditu alegaziotzat hartzen, ez baitago ezer adostuta edo irekita une honetan alegazio horiek aurkeztu ahal izateko.*
*Udal honen ustez, XXX jaunak aurkeztutako idazkia zehaztugabetasun eta funtsik gabeko salaketa larriz beteta dago, eta ondoren azaltzen diren argudioekin deslegitimatu egiten dira:*
*Idatzian agertzen diren oharren aurreko azalpenak.*
*2011n onartutako Babes Plan Berezian (BPB) jasota dauden harresiei dagokienez, horiek dira halako begi-bistako ebidentzia bat zutenak.*
*2008an egindako azterketa geoteknikoan jasotako jarduera bat kentzeari dagokionez, zehazki lehenengoa, ez da gauzatzen, 2023an eraikina (Massoren borda) bota egin baitzen, hondamen-mehatxuagatik, eta euste-horma sendotu zelako.*
*Eremu batean (Urdozena etxetik Iñarreakoa) horma mota 2008an egindako azterketa geoteknikoan aurreikusitakoarekin alderatuta aldatu egin dela dioen baieztapenari dagokionez, ikerketak irtenbide teknikoak (hormigoizko horma edo harri-lubeta) aipatzen zituelako lurzoruaren egonkortasunaren arazoari erantzuteko, eta gaur egun irtenbide tekniko hori eman nahi da, 2011n onartutako BPBak antzinako defentsak berreskuratzeko ezarritako irizpide historikoekin.*

***Opakutasuna leporatzea.***
*Duela 15 urte egindako proiektua dela argudiatuz, Udalak opakutasunez jokatu duela dio, eta hori guztiz gezurra da. Proiektua orain ari da prestatzen eta joan den otsailaren 28ko bilkuran idaztea erabaki zen. Defentsa-barrutia berreskuratzeko egin diren ekintzak osoko bilkurako aktetan islatu dira, bai erabakiak hartzean, bai osoko bilkurari informazioa ematean. (2008ko apirilaren 10a, 2008ko abenduaren 18a, 2009ko apirilaren 23a, 2009ko ekainaren 4a, 2009ko abuztuaren 6a, 2009 urriaren 15a, 2009 abenduaren 17a, 2010eko ekainaren 17a, 2010eko irailaren 9a, 2010eko abenduaren 21a, 2011ko abuztuaren 18a, 2011ko urriaren 13a, 2011ko abenduaren 22a, 2012ko apirilaren 19a, 2012ko urriaren 4a, 2013ko urriaren 7a, 2014ko otsailaren 11a, 2014ko urriaren 7a, 2014ko abenduaren 18a, 2019ko maiatzaren 29a, 2020ko maiatzaren 25a eta 2021eko martxoaren 15a). Laburpen gisa, 2008az geroztik egindako jarduerak 2023ko urtarrilaren 24ko bilkurako aktan jasota daude. Ordutik hona egindako jarduera osoko bilkuren akta-liburuan jasota dago (2023ko apirilaren 25ean, 2023ko azaroaren 3an, 2024ko otsailaren 6an eta 2024ko otsailaren 28an). Aktak Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren webgunean jartzen dira, eta, legealdi honetan, Udalaren wasap taldean hedatzen dira. Gainera, urteko kontuen eta aurrekontuen batzarretan eman da horren berri, eta 2025eko apirilaren 11n eta ekainaren 28an egin ziren batzarretan, gai-zerrendaren puntu gisa agertzen zen.*
*Karrera amaierako proiektuak orduko alkate zen Jose Irigaray Gilen tutoretzapean egin zirela eta bizilagunei publikoki azaldu ez zaizkiela arrazoitzen du. Lehenik eta behin, zehaztu behar da nekazaritzako ingeniari tekniko gisa tutorizatu zituztela, hori baita beren unibertsitate-titulazioa, eta ez Aurizko kargu publiko gisa, iradokitzen duen bezala. Horien publizitaterik ezari dagokionez, guztiz zalantzazkoa da, 2011ko abuztuaren 18ko eta abenduaren 21eko osoko bilkuretan eman baitzen horien berri, dagozkien aktetan agertzen den bezala, eta, gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegian daude jendearen*

*eskura, han baitaude gordeta. Ez da ahaztu behar proiektuak inolako balio juridiko edo arauemailerik ez duten ikerketak direla, ideiak azaltzen dituztela eta bere helburua unibertsitateko ikasleen prestakuntza dela.*

***Arautegia ez betetzea.***
*Azaldu du ez duela betetzen BPBean ezarritakoa; zehazki, 99. artikulua. Memoriak, ez proiektuak, udalaren hirigintza aholkularitzaren aldeko txostena du, baina proiektua izango da artikulu hori zehaztu eta bete beharko duena.*

*Bere idatzian exekuzioaren emaitzaren simulazio grafikoak egiten ditu, horretarako memoria bat eta karrera amaierako proiektu bat erabiliz, exekuzioa definituko duena proiektu bisatua izango dela kontuan hartu gabe, horretan ari baitira lanean.*

*Ibilbideak mugikortasun urriko pertsonak diskriminatuko dituela eta jabego pribatuetatik igaroko dela esaten du. Hain zuzen ere, proiektuak ibilbidean eta zerbitzuetan oztopo arkitektonikoak kentzea aurreikusten du. Ibilbideko finka pribatuen inbasioari dagokionez, adierazi behar da proiektuak definitu eta zehaztuko duela, baina ibilbidea ez dela inoiz finka pribatuetatik pasatuko. Batzarretan behin eta berriz eman da azalpen hori eta berari, pertsonalki, 2025eko apirilaren 11n egindako batzarrean erantzun zitzaion.*
*XXX jaunak egindako ibilbiderako zolaketa proposamenari dagokionez, Udalbatzaren ustez, bertan bai egiten zaiola mesede interes partikularrari, zehazki bereari, aipatu duen interes orokorraren kaltetan. Hala ere, erredakzio taldeak proposatuko ditu bai trazadura eta baita zolatu beharreko zonak ere, eta noski, irisgarritasun irizpideak beteko ditu.*

***Historia faltsutzearen eta lurren pribatizazioaren akusazioa.***
*Historia faltsutzearen akusazioaz, lurren titularitateaz eta proiektuan manipulatzeaz. Ulertu behar da gaur egun ezinezkoa dela 1637ko defentsa-barruti osoa berreskuratzea, zati batzuetan eraikitako eraikuntzek hartzen baitute. Kontuan hartu dena 1877ko dokumentua da, non Miguel María de Masso alkateak gotorlekuetako harriaren eta bere kokapenaren zerrenda egiten duen.*
*1888ko udal artxiboan dagoen agiriari egiten dio erreferentzia, eta harriagatiko gatazka hura Lorentxeneko finka batean kokatzen du, bere ustez defentsarako esparrutik kanpo geratzen dena. Ez daki etxe horrek hainbat jabetza zituela hirigunean, eta dokumentuak gotorlekua eraitsi ondoren pilatutako harriaz hitz egiten duela Airetiko ortofotoa aurkeztu du eta bertan gatazka gunea ez du Lorentxeneko zelaian kokatzen, Oiarbide eta Recako zelaietan baizik. Hau da, are urrutiago herrigunetik. Pentsa daiteke ezjakintasunez edo nahita egin duela, Udalak darabiltzan argudio historikoei garrantzia kentzeko.*
*Nolanahi ere, jakinarazi behar da proiektua idatziko duen taldeak arkeologo baten aholkularitza duela, eta hark lagunduko duela obra zuzentzen. Nolanahi ere, Vianako Printzea erakundearekin batera ari dira lanean, erakunde horrek aldeko txostena eman baitu orain arte egin diren jarduketek hala eskatu dutenean.*

*5. (Zurgineneko baratzea) eta 10. (Aguio eta Espelosin edo Agorretaren atzealdea) hormak faltsuak direla dio eta horiekin egin nahi den gauza bakarra, bere ustez, egindako*

*irregulartasunak legeztatzea dela. 1927 eta 1934ko ortoargazkien bidez argudiatzen du hori, non, hain zuzen ere, bi aldeetan ezpondak daudela ikusten baita, joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan egin ziren ondorengo eraikuntzen ondorioz desmuntatuak izan zirenak.*
*Proiektua gauzatuta, aurreko orografia berreskuratu nahi da, lurraren higadura saihesteko. Dokumentazio historikoan, gotorlekuak hartzen dituen leku gisa aipatzen dira eremuak.*

*2009an egin ziren 4. (Garate baratzea) eta 9. (Etxeberria borda) hormen birgaitzean harria bota zela dio, eta hori ez da egia. Izan ere, hori gauzatzeko udalerrian egindako eraispen-harria berreskuratu zen.*

*Lur publikoen pribatizazioari buruz egiten duen aipamenari dagokionez, argi utzi behar da ez dela egia eta, noski, ez dela Udal honen asmoa, memoria idatzi duen Fernando Martinez arkitekto jaunak egindako txostenean adierazi den bezala (bere garaian XXX jaunari helarazi zitzaion txostena).*
*Memorietan zeuden aldeak arkitektoaren txostenaren bidez argitu ziren, eta txosten hori apirilaren 11ko batzarrean azaldu zen. Nolanahi ere, XXX jaunak herri-lurren pribatizazioari buruz azaldu duen kontrako ildoari jarraitzen dio Udal honek, eta herri-lurra defendatu eta berreskuratzeaz arduratzen da.*

***Udalbatzako kideen eta beste auzokide batzuen senideen onura lehenestea leporatzea.***
*Bere ustez, neurri batean, udalaren ordezkarien senitartekoen mesedetan gauzatzen da proiektua.*

*4., 5. eta 6. hormak (Erlande, Zurginenea eta Azanza edo Txantxutena baratzeak) birplanteatzea eskatzen du, araudia bete dadin, eta udalbatzako kideen senideen (Unai Irigaray Osés, José Irigaray Gil eta Ana Azanza Burusco) mesederako egitea proposatzen dela baieztatzen du, Aurizko Udalaren izenean matrikulatutako udal jabetzako lursail publikoan ezartzen denean. Udal-ordezkarien senitarteko batek ere ez du jabetzarik jarduketa-eremu horretan.*

*Lurren titulartasun pribatu edo publikoari dagokionez, ez dago eragozpenik. Agoizko Jabetza Erregistroan kontsulta daiteke, eta bertan ikus daiteke lurren titularra Aurizko Udala dela. Jarduketa lur publikoetan egingo da.*

*6. hormari dagokionez (Azanza edo Txantxuteneko baratza), interes partikularragatik egiten dela salatu du, zehazki, udalkide baten (Ana Azanza Burusco) familiari mesede egiteagatik. Behin eta berriz esan den bezala, jarduketa udal lurretan egiten da, eta Aurizko Udala da lur horien titularra. 2000ko otsailaren 8ko ohiko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen lursail horren izaera publikoa defendatzea, eta hala dago jasota Agoizko Jabetza Erregistroan. Hain zuzen ere, XXXk ongi ezagutzen du hori, 2000ko otsailaren 8ko osoko bilkuran zinegotzi gisa parte hartu baitzuen, akta horretan jasota dagoenez. Konpontzeko eta zaharberritzeko eskaerari dagokionez, talde teknikoak baloratu du, eta, azpiegitura*

*kolapsatzeko zorian dagoenez, desmuntatzeko eta egoera onean dagoen harriarekin berregiteko asmoa dago, proiektuan ezarritako altueraraino.*

*6 Eremuari (Ordoki Baratzea) buruzko erreferentzietan, eremu horretan jarduketak desagertzen direla dio, behin betiko proiektuak eremu komunal horretan jarduketak planteatzen dituenean, batzarrean azaldu zen bezala. 9. eta 11. hormak (Aguio eta Espelosin edo Agorreta atzealdeak) kentzea proposatzen du, bere ustez partikularrei mesede egiten dieten jarduerak direlako, eta publikoa den baratze hori (Ordoki Baratza) itxiz horma batzuk egitea eskatzen du Proposamen horren zati batek ez du logikarik ezta zehaztasun historikorik defentsarako esparruan, zehazki, beheko aldean planteatutakoa Ondoko baratzea bere jabetzakoa da eta bere proposamenarekin eremua fronte guztietatik itxita geldituko litzateke. Eremu horrekin lotuta, proposatzen duen beste inkongruentzia bat 6. hormaren atzeraemangunea da (Azanza baratzea edo Txantxutena). Horma horren trazabilitatea historikoa da, eta titulartasun publikokoa, sarbide-aldapa zabaltzeko eta hesi bat ez ukitzeko. Hesi hori ireki egin beharko da, ziur asko, ibilbidetik esparrua ikusgai jartzeko.*

***Ondorioa.***
*XXXk, amaitzeko, proiektua aldatzeko eskatu du, interes orokorraren arabera jardun dadin, irisgarria izan dadin, hirigune historikoaren Babes Plan Berezia (BPB) errespeta dadin eta harresiak berreraikitzeko interes partikularragatik ez jarduteko.*
*Lau gai horiei dagokienez, esan behar da proiektuak, nola ez, interes orokorrari begira jarduten duela, irisgarritasuna bermatuta egongo dela, eta, jakina, udalaren hirigintza-araudia errespetatuko dela, udalaren hirigintza-aholkularitzaren eta Vianako Printzea erakundearen txostenak kontuan hartuta, orain arte egin den bezala.*
*Udalbatza honek ezin du onartu hormak berreraikitzeko orduan zinegotzien senideen interes partikularra defendatzeaz akusatzea, Udal honen modus operandi den interes orokorraren aurrean, eta ezin da onartu, ezta ere, herri-lurrak pribatizatzearen akusaziorik, proiektu honekin edo beste ezerekin inoiz egingo ez denik.*

Irakurri ondoren, Irigaray Osés alkateak honakoa gehitu dio testuari eta horrela agertzea nahi du:
Opakutasun-salaketei dagokienez, XXXjaunari eskatu dio esan dezala Aurizko ezaugarri bereko zein udal ezagutzen duen gardentasun-maila honekin, eta, hala bada, horren berri eman diezagula.
Udal honek parte-hartze sozial eta politikoaren alde lan egiten duela, irisgarritasunaren alde, eta herritarrek etxe hau hurbil eta irekita senti dezaten.

Pribatizazio akusazioei dagokienez, udal honen lan ildoa justu kontrakoa da, komunala berreskuratzea eta defendatzea, eta horrela ez balitz, Nafarroako Gobernuko Komunalen Atala bera arduratuko litzateke, orain arte egin duen bezala, hori galarazteaz.

Argi utzi nahi du Udalbatza honek, proiektu honetan eta beste batzuetan, hirigintza-legezkotasuna kontuan hartuta lan egiten duela beti, eta, jakina, interes orokorrari begira, eta ez partikularrari.

Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez:

1. XXX jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian aurkeztu duen idatziaren erantzuna onartzea.
2. Ondare Arkitektonikoaren Atalera bidaltzea erabaki oso hau, XXX jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren aurrean Aurizko harresi-barrutia berreskuratzeko proiektuari buruz egindako galderei erantzuteko. Proiektua idaztea Udalak sustatzen du.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 11:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.